

MUTRIKUKO GAZTEAK MARTXAN ALKATETZARI ERANTZUNA

Gu **M.G.M**-ko gaztiak aspertuta gaude alkatetza behin eta berriz, besteen ideiak kritikatzan ari delako eta horregatik, gaitzestea erabaki dugu. Gu Mutrikuko neska mutil talde bat gara eta nahiz eta gaztiak izan, **ez gaude alkatetzak dioen bezala desorientatuta**, badakigu zer nahi degun.

Zuen ustez plataforma guztiak demagogikoak dira, zuena izan ezik. Plataforma hauek ez dira kea saltzen ari, alternatibak baino. Zuen portuak ordea kea saldu beharrean **usain oso txarra** botatzen du, **kiratsa**.

Herrian egindako obra berriekin ados gaude eta zorionak emateko ez dugu inongo beldurrik, baina horrek, **ez du portu berriaren proiektuarekin zer ikusirik**. Hori da kea saltzea!

Talde hauen kezka ez da soilik piztina, baina zuek horrela zuzendu nahi duzue. Zementada negoziagarria dela diozue **eta beste guztia ez?**

1994an Mutrikuko talde bat (9 pertsona, tartean alkatea) portua hobetzeko batu ziren eta **babes moilaren** eskaera egin zioten gobernuari. Gaur egun, dirudienez, betidanik egon zarete kanpoko portua aldarrikatzen.

Herrian garapen sozio ekonomikorako ez da soluziorik onena bere lekuri eder eta maitatuena txikitzea. Sozial aldetik, herri guztia eztabaidan dagoelako eta ekonomi aldetik, denok dakigu **arrantza galtzen** ari dela nahiz eta oso tristea izan.

HOBETU LEIKEK aurkeztutako dikea autopistako betegarria bada, zuen portua zer da, Hondarribiko aireportu berria? Hobetu Leiken dikea oso egokia da, eta ez zuena bezala, izan ere **Alkolean olatuak rebotatu egiten du, eta moila barruraino sartzen da olatua**.

Zuek erabakitako dikeak **ez du Evaristo Txurrukarenakin zer ikusirik**. Ingenieru honek burua altxatuko balu...

Zergatik ez du gaurko portuak zerbitzu hoberenekin etorkizunik? Gaur egungo teknologiarekin aldatzea asko daude, adibidez **Santakarra bizirik** taldearena eta **ez esan hau ezinezkoa dela**, gezurra da eta.

Guk ez dugu igerileku moderno nahi, orain dagoena baizik.

Itsasoa kalmatzea lortuz gero, piszinatik moila berrira dagoen harri-botietan eguzkia hartzeko lekua badago, adibidez, egin beharrekua harrizak kendu eta hondarra botatzia da.

Mesedez ez engainatu esanaz Mutriku zingira baten barruan dagoela gezurra da eta. Zuek diozuen **trainerua zuzentzeko, azaldu gara ziboga emateko, bestela haitzetara goaz eta**.

Lan egin behar da bai, baina zuek zarete arduradunak, herriaren beharrak betetzeko ahalik eta **kontsentsu** handiena lortzea eta horretarako alternatibak entzun behar dira.

Portua egingo den ikusiko dugu, oraindik eragozpen ugari dituzue, eta aurrera joan ala, gehitzen joango zaizkizue.

Ez gezurrik esan, lanpostuen inguruan. 7 lanpostu izango dira ez gehiago; ez dago langile gehiagoren beharrik eta.

Soluzioa eman nahi baduzu egin **ERREFERENDUMA** bestela esan daiteke portu hori inPPosaketa bidez ezarria izango dela.

Gazteok garbi eman dugu ezetza eta horietxek dira, disfrutatu edo izorratuko direnak etorkizuneko portuarekin eta ez lehenengo harria jarri zutenean egon zen jendea.

Mutriku 2002ko urria

M.G.M

Mutrikuko Gazteak Martxan

mutrikukogazteakmartxan@hotmail.com